



Geografiaren aldetik, Groenlandia-ren probintzia bat da Dinamarka. Ekonomia-ren aldetik, berriz, ez dago garbi Alemania-rena, Ingiaterra-rena edo Suezia-rena ote dan. Baina Dinamarka nortasun osoko ta bereziko herria da. Eta ez Tuborg zerbeza famatuagatik edo gaztaiengatik bakarrik. Dinamarka-ko zelai goxo ta lehunean, jendearen arpegia argiz beteta agiri da beti, ille oria bezelaxe. Vikingoen ondorengook paketsu dira. Inungo jenderik atseginena, txeratsue-na ta maitekorrena arrotzarekin. Nekazaria ta arrantzalea, halare, ixilla ta itxia. Herri handietatik kanpora merkeena ta egokiena baserrietan gau egitea da.

Dinamarka-ko lurra aberatsa da. Baina lurra, ez lurpea. Nekazaritza aberatsa du, hortakoz, Dinamarka-k. Baina laborantza, lurra poesia bihurtu dute hemen. Poesia ta arkitektura horizontala. Plantxatuta dagoela esango litzake, xapal-xapal eta xehe, lau haizeetan zeru-abarreraino ikus ditekean guztia. Kaiolak millaka, soro guztietan, eta zerua baju. Pauso bi eman orduko anak itsasoan bustitzen diran lur

munduz- mundu

hontan Andersen-en izpiritua, realista baina biguna, lurralde guztian zabaltzen da. Andersen-en ipuinen eszenarioa dirudi itsas-ertzetan zeruak eukitzen duen giro zuri eta berdeko dinamarkar zeru guztiak ere.

Ezaguna da Dinamarka-ko mantenu-politika. Aditu edo teknikoek erabaki duten bezala jaten da hemen. Ume potzoloak nunahi, bizikletan: Dinamarka-n bizikletak lehenengotasuna daukate, autoen aurretik.

Mendirik ez dago. Kolding-en ba omen zegoela gaztelu bat mendian, esan ziguten, eta hara joan gi-

nan bazkaltzeko ta ibillaldi bat mendian egiteko asmatan. Lurralde batera abiatu aurretik, hango kondaira irakurtzen dut nik beti, eta horri eskerrak enteratuta nengoen Kolding-eko gazteluaren zori on eta txarrez. Gaztelu hau fiordo batean nola dagoen, ikaragarritzko mendi malkorren bat itxaro nuen. Gainera, nire uste-on ximplean, askotan irakurria naiz Hamlet Herriherri edo Olite-ko gazteluaren aurrean, atzean Uxue-ko mendi urdinak ni-tuela. Shakespeare-ren dramari eszenario agoki bat asmatu niola iruditzen zitzaidan, horrela.

Dinamarka-ko gazteluak, ordea, Renaissance estiloko jauregiak dira. Halako asko ta galantak daude Dinamarka-n. (Dinamarkarrek jaso zituzten benetako gudu-gazteluak Suezia-ko hegoaldean aurkitzen dira. Helsinborg-eko portu gainean bikainena). Eta Dinamarka-ko mendiak ez dira ttonttor txiki batzuk besterik. Kolding-eko "mendiak" 25 metro zeuzkan, eta oker ez banago Dinamarka guztiko mendirik altuenak ez dauka berrehun metrorik.

Baina Dinamarka-ren ize-nak beste gabe bururatzen dio euskaldunari Kierkegaard. Lehenengo impresioan zentzungabekeria hutsa dirudi Kierkegaard Dinamarka-ko giroan koadratu nahi izateak. Herri osasunez bete hontan ez dirudi "heriotzerako gaitzak" burutazio asko sor lezakeanik... Eta halare, Kierkegaard-en izpiritua lur honetxek sortu zuela ikustea ez da zailla. Ez lau xehe

joxe
azurmendi

ta goxo honek; ezta bidean agiri diran basetxetxo gorri-gorri, berde edo koloretzuek ere. Baina zeru bajuak, lanbroak, itsaso hilla eta kezkatia. Horizonta beti lainatuak. Hoek sortu zuten "mugatu izatearen desesperazioa", eta

Bi Dinamarkak

"bakardadearen" sentimendu samina.

Ba dirudi paraje hau Euskal Herri-koaren kontrast bete-betea dala. Hain txukuna agiri da Dinamarka-ko zelaia, dena metroz-metro ordenatu ta zaindu-

ta bezala. Ez dakit zergatik iruditzen zaidan gorputz arras ezberdineko parajeok, alegia, euskaldunak eta dinamarkarrak, izpiritu berdina daukatela. Agian argia dalako paisajearen izpiritua. Portu guztietan aurkitzen nituen Baroja-ren arrantzaleak. Eta sentimentu tragiko batek inguratzan dituela Dinamarkako bostehun ugarteak iruditzen zitzaidan. Odense-kerak, Andersen-en sorlekuak, zerbait tragiko dauka bere harri zaharretan. Tragikotasun bare, etsipen serioz bete ta karraxirik gabea.

Kopenhagen beste Dinamarka bat dala esan leike. Korsör-era orduko nabari diteke, Zeeland guztia Kopenhagen-en auzo bihurtu-abaturik dagoela. Ezin ukatuko da Kopenhagen huriburu ederra dana, ez dauka gaizki mezeria izen hori. Baina, esaterako, Kierkegaard eta Unamunoren arteko (agian Andersen eta Kirikino-ren artekoa ere) aidetasun eta paraleloa nabarmenak baldin badira, Kopenhagen-go Thorvalsen eskulturagille klasizista izugarriari ezin soma zaio paralelorik Euskal Herria-n. Begien infernu bat dira Thorvaldsen-en hamabi apostoluak eta Jesukristo, Kopenhagen-go Andre Maria-ren elizan.

Baina Kopenhagen-dik berriro ifarrerantza irten da, Helsingör-en, Hamlet-en gaztelua dago itsasoaren gainean, teillatu kobreztatuko malakita dirdaitsuarekin. Kopenhagen-dik igesi bezala, ifarreko lainoetako bakardadean.

